

Brokolo ere joan zan
 inguru artara.
 Ontan erdaldun jaun bat
 beragana joanik
 eta zer pasatzen zan
plazan jakin nairik,
 erderaz galde zion:
 —¿*Hay alguna función?*
 —*Sí, señor, en adentro*
juegos de HILOS son.

JOSÉ ARTOLA.

*
* *

BULEBARRIAN



Udako arrats atsegiñaren
 alaitasunak nonbait poztuak,
 pasiatutzen ziran gozoro
 aberats eta pobre nastuak,
 soñu politak josta aziyaz
 bertako arbol lizar ostuak.

Bakar bakarrik gora begira
 emanaz geldi geldi pausuak,
 gizon lodi bat zeuzkanak beti
 begiyak zorrotz zerbait goituak,
 eztakit bere pentsamentura

billzen zitzaizkan gauza gaistuak.

Ontan batetan gelditu eta
 begiratzen du gizon aitua
 argi kristaldun *eletrikara*
 etzeuzkanak ez, nonbait aztuak.

Ala jarri da anka zabalka
 eta naiz egon altu lotuak...
fun indarrarian aize emanda
 gizon lepo motz lodi puztuak,
 argi guziyak kolpe batian
 itzali ditu, arrayetuak.

V. IRAOLA.

